# gure irratiak «erdararen» bultzatzaile

Ez da lehenengo aldia "Euskal Herrian Euskaraz" taldeak egia lotsagarri hau salatzen duela. Euskal herrian finkaturiko tele-irrati gehienak "erdararen" bultzatzaile eta "euskararen heriogarri" gertatzen ari dira. Euskaldunok orain bost urte eginiko ametsak burla gertatu dira; gure lurrean kokatutako irratiek euskara, neurri lotsagarrian baztertzen ari dira, gure herria "erdeldunagoa" oraindik bilakatzen ari dira, euskal giroa etxeko sukaldean, etxe barneko zokoetan "erdeldunagoa", "españolagoa" egiten ari direlarik.

Bai telebistak eta bai irratiek, adibidez, ikastoletan halako ahalegin eta nekez eginikoa, ia zeharo anulatzen eta deuseztatzen ari zaizkigu. Lotsagarria, penagarria, bainan egia.

Euskal Herriko irratian inork ez du betetzen bete behar zuena, adibidez, euskaldungoaren proportzioak ikusita. Ba al dakizue Nafarroako %-eko 15 euskaldungoak ez duela sekulan hitz bat euskaraz entzuten irrati bidez, "agur" bat ezik? Ba al dakizue Araba-ko euskaldungo berria, barau dagoela euskarataz bere etxetan eta gizartean? Hortarako merezi al du euskara ikasteak? Zertarako ditugu ikastolak, gure patriketatik hainbat izerdiz eutsitako gau-eskolak, ikastegiak etabar?

Euskal komunitatea komentzitu beharrean dago hemen euskara burlatzen ari zaizkigula, ia sistematikoki, hainbat eta hainbat erakunde. Bestalde, euskalduna izan behar du bereziki "protesta" hori egin behar duena, erdaldunak eta vasko erdaldunak ez baitu oso maiz sufritzen irratian española baino entzuteagatik. Euskara ez da altxatuko lozorro sozial honetatik errebindikazio bidez baizik; denok hartu behar dugu bide hori; euskarak gaur duen larridura ikusirik kulturan besterik gabe jardutea aski dela pentsatzea burua hondarpean sartzea da. Euskaltzaindiaren beraren egiteko nagusia "euskararen iraupena" da; hori delarik guk bere partaide batzuetatik hartu dugun zenbait kritika oker handi eta penagarri bat deritzagu. Ez da aski euskararen egoera aztertzea eta harriturik gelditzea... euskara borroka bidez eskatu, exijitu, behartu, bortxatu ere egin behar dugu, ezen-eta eta euskara gaur erasotzen, asesinatzen ari zaigu hainbat eta hainbat erakunde eta organizazio. Gaur Irratian jokabideaz ari gara. Mugatu gaitezen Gipuzkoara. Gipuzkoan euskaldungoa ia % 50 koa da. Lehendiko %-eko 47-koa pasatua dugu. "Euskal Herrian Euskaraz" taldeak inkesta berria egina du gure probintzian finkaturiko irratiek darabilten euskara-kopuruaz. Egia lotsagarria hor dago: hemen ere irratiek (proportzio desberdinetan) erdararen bultzagarri eta euskararen heriogarri dira. Ez gaitezen engaina; euskararen diskriminazioak bere toki eta erakunde bereziak ditu, beste faktoreeen artean. Egunero, orduero, segunduero gure etxe eta baserritan "Radio Nacional", "La voz de Guipúzcoa", "Radio San Sebastián" herri hau, Euskal Herria hau, Erdal Herriagoa bihurtzen ari zaizkigu. Horrela ezin dezakegu jarraitu... Euskaldunok zozoegi, komodoegi eta penagarrriegi portatzen ari gara, zenbaitetan, gure euskararekin. "Euskara ere borroka da" hainbat "borroka-tradizio" duen herri honetan. "Euskara borroka" bihurtu behar du, zeren-eta gaur hizkuntz desoreka gure heriogarri da, gaurko bake gezurtia euskararen asimilazio-bide hutsa da...

Hona bada inkesta horren fruituak Gipuzkoan:

| | Euskaraz egiten | Behar luke |
|---|---|---|
| Radio Nazionalak | %-eko 0,36 | %-eko 50 |
| La Voz de Guipúzcoa | %-eko 3 | %-eko 50 |
| Radio San Sebastián | %-eko 7 | %-eko 50 |
| Herri Irratia | %-eko 14,7 | %-eko 50 |

Dato hauen arabera Herri Irratia da gehienik ematen duena, baina Herri Irratia oso urrun dago hemen ez diskriminatzeko, gutienez, erabili behar lukeen kopurutik. Besteak zer? Ba, taldean harturik euskararen burla publikoa egiten dutela, hizkuntza españolaz gure herria erdalduntzeko biderik eta tresnarik egokienak direla. Hau ikusirik ez harritu batere ikastolako haurrak euskara egiten ez badu, ala egin nahi ez badu... Euskarak komunikabideetan egunero zaplaztako biziak hartzen ditu, Telebista eta irratien bitartez herri hau geroz eta "arrotzagoa" bihurtzen ari zaigu, eta guk diogu "euskara ere borroka" izan behar duela hainbeste borrokatzen dakien herri honetan. Nola utzi bertan gure hizkuntza gainbehera daraman maldabehera hau? Nola utzi berean gaur asimilazio kultural lotsagarriena den "Telenorte" hori? Dakigunez Gales-en (elebidunak Euskal Herrian baino gutiago direnez) astean 24 ordu dauzkate galesez telebista, hemen ez da iristen, agian, 35 minutura ere. Eta etortzekoa den Telebista hori "vasko hutsa" ala euskalduna izanen ote da? Telebista horrek euskararen heriogarri izaten iraungo ote du?

Hona irratien zehaztapen batzuk: Irrati Nazionalean aste osoan euskaraz ez da egiten 35 minutu baizik; La Voz de Gipuzkoak egunean 25 minutu, eta 15 minutu euskarazko klasea. Donostiako Irratiak ordubete bat egunero... Eta egunak 24 ordu dauzka, eta irratibidez 17 bat ordu. Ondorioak zeuk atera. Eta hauetako programa batzuk euskararen erabilpena "baserri kutsu subagrario " batez dute (bereziki Radio Nazionalean eta la Voz de Guipuzcoan). Burla hau ezin dezakegu gehiago jasan. Zuek, irratiok, praxian euskararen etsai zarete; gure hizkuntzaren heriogarri eta erdararen bultzagarri lotsezkoak zarete. Hemen euskara minutuero heriotza probatzen ari da, hemen euskarak diskriminazioa egunero pairatzen du.




Non dira elebitasun orekatsu baten aldekoak? Hau oreka edo ekilibrioa al da? Hau gure kultura errespetatzea al da? Ez, Gipuzkoan euskara %-eko 4 batean ematea euskararen etsai izatea da, bere diglosia areagotzea da, bere herioa mamitzea da. Euskal komunitateak lozorro honetatik irten behar du, protestatu, erreboltatu egin behar du.

Eta honetan aitzekiek ez dute balio. Gipuzkoako %-eko 50 hoiek ez dira analfabeto euskara *entzuteko* eta euskara *ikusteko* (telebistaz) Aitzakiak izan ditugu gure egunkarien kopurua jeisteko euskararen proportziotan. Irrati eta telebistentzako ez dago euskaldun analfabetorik... Denak horretan alfabetatuak ala entzungarriak dira.

Hau guztia ikusirik "Euskal Herrian euskaraz" taldeak euskaldunen laguntza eta kolaborazioa eskatzen du. Tokian tokiko denak euskararen burla kolektiboa norberak gera beza; udaletxeetan, komunikabideetan , eskoletan, kalean, tabernan euskarak duen bazterketa hau sala eta denuntzia beza.

Guk ez dugu onartzen "Euskal Herri" ez den Euzkadirik.

EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ
DONOSTIAKO TALDEAK

## colaboración

### en relación con las declaraciones de bandrés

Hace apenas un mes que mataron brutalmente a José Martín Sagardia "Usurbil". Señor Bandrés, ¿se acuerda usted de lo que dijo en casa de "Usurbil"? *"Lasai egon, Joxe Martin ez zen terrorista".*

Qué pena, cómo cambia usted de opinión en un mes. ¿Será verdad que usted esté luchando por los presos, cuando apoya su partido a los que practican el *fascismo* sobre Euskadi? Porque... *fascistas* son aquéllos que traen instructores fascistas para crearse su policía autónoma particular. *Y usted va con ellos.*

Fascistas son aquéllos que forman gobiernos monocolores despreciando la participación a otros partidos. *Y usted va con ellos.*

Fascistas son los que niegan la legalización de algunos partidos independentistas y republicanos. *Y usted va con ellos.*

Fascistas son aquéllos que aplauden a las fuerzas represivas franquistas cuando están golpeando a unos abertzales que piden la amnistía, que usted dice también sentir. *Y usted va con ellos.*

Fascistas son aquéllos que desalojan la Casa de Juntas de Gernika a base de palos – éste sí que es un atentado contra la democracia y los derechos elementales de libre expresión–. *Y usted va con ellos.*

Fascistas son aquéllos que permiten en Euskadi torturas, encarcelamientos y muertes como las de Zapa, Gladys, Usurbil, etc... *Y usted va con ellos.*

Fascistas son todos aquéllos nacis-españoles, ya sean de derechas o izquierdas, que niegan la autodeterminación de Euskadi, y a Navarra como parte integrante de ella. *Y usted va con ellos.*

Fascistas son aquéllos que dicen que Lemóniz se va a terminar de construir, pase lo que pase. *Y usted va con ellos.*

Ayer usted estuvo con los que defienden la *razón* de la *fuerza*, sí, con esos fascistas que no hacen ni están dispuestos a hacer la *paz en Euskadi.*

(H.B. KAS, LAB,
Gestora pro-Amnistia,
Comité Antinuclear)
de USURBIL

### jauregi, monzón y eta

Ahora, recién fallecido Jauregi, y cuando la oposición entre PNV y ETA se presenta como algo ligado a la lucha armada practicada por ésta, el suceso protagonizado un día en Euskadi-Norte por el líder del PNV presenta especial interés.

Vivía yo en Anglet en aquellos tiempos (1963), antes, por lo tanto, de la primera expulsión (1964) por parte del Gobierno francés. Y vivía también en Euskadi-Norte Julio Jauregi, quien, si la memoria no me falla, se ocupaba de un asunto de importación-exportación con un tal Uzelai, también escapado desde la guerra del 36. Y llegamos a conocernos. Aún recuerdo perfectamente mi primera conversación extensa con Jauregi en Hasparren.

Julio Jauregi "no podía creer" (eran sus palabras insistentes) que el PNV se opusiera a ETA de forma tan radical. Y, convencido de que una coordinación era posible, hizo una tentativa de acercamiento. Pensó en una cena, como primer paso, a la que asistiríamos tres miembros de ETA, tres del PNV, digamos "oficial", y otros tres del PNV "dialogante" digamos: él mismo, y los dos hermanos Monzón –Telesforo e Isidro, entonces miembros del PNV todavía, y ya en excelentes relaciones personales conmigo y con otros muchos patriotas de la nueva hornada–. Por parte de ETA se nos propuso a Benito del Valle, a Madariaga y al que suscribe; y se fijó un restaurante (junto al Hotel du Palais, en Biarritz), el día y la hora.

Cuando llevábamos ya casi una hora esperando los hermanos Monzón y los tres de ETA, sorprendidos de la tardanza, llamó Monzón a Jauregi, y éste le comunicó que, con harto sentimiento, no asistiría a la cena, por haber recibido una prohibición tajante "de Beyris" (barrio donde se hallaba entonces la residencia del PNV en Bayona), y que, por supuesto, tampoco asistirían los miembros del PNV "oficial". Reconoció estar un tanto desmoralizado por esta medida, pero dijo no tener más remedio que obedecer la orden, por disciplina de partido.

Esto ocurría hace 18 años, y es historia pura. En tanto que el atentado contra Manzanas fue en 1968. Pero ante el aluvión de conversos de última hora, que no saben *nada* de la historia del PNV, me parece necesario recordarlo.

TXILLARDEGI

### kopeteraino

Egun gutxi dela, Eibarko Crossaren kartelak erdera hutsean idatzita zeudela ikusirik, urrengo urterako uztea erabaki genuen. Baina dirua aurreratzeko edo, Elgoibarkoek ere berdin egin dute. Antza denez, euskaraz idatzita ez dauden kartelak irakurtzen ez ditugunok, guztiz baztertuak gaude, toki batzuetan behintzat. Laburki esanda: kopetaraino gaude.

J.E.
A.V.

### faszista

Otsailaren arratsalde eguzkitsu honetan, Herri Irratiaren ordu bateko ohizko partea entzun berria dut. Garaikoetxea jaunari entzun diot hitzaldi lazgarri bat: ikusten danez, "terroristas, cómplices del terrorismo y tolerantes con el terrorismo" direlakoak gupida gaberik eta gotorki lasterkatzeko eta zigortzeko prest dira; are eta gehiago, horrelako pertsonak isolatzeko eta salatzeko deia egiten diote egiazko euskal herriari.

Garaikoetxea jaunak barkatuko dit (ala ez, seguraski) adierazpenarako askatasuna holan erabiltzea, baina jokaera bati *faszista*ren izenlaguna ongi ba dihoakio, bere jokaerari da. Normal normala da, duda gaberik, sistema kapitalista zapaltzaile honen defentsaileek sistemak berak ere iraupenerako eta bere bizitzarako erabiltzen duen etengabeko biolentzia ez ikustea; normala da ere sistemaren aurka egiten den biolentzia etika humanista hutsa eta ordena publikoaren hesparru soiletan koka eta azter dezatela. Eta, azkenean, zoritxarrez ere, normala da barrikadaren bi aldeetan dauden etsai amorratuen hitzak eta argumentuak elkar ulertezinak izan daitezela, nahiz eta hizkuntza berdinean (ez beti, baina...) ari izatea. Biolentziari buruzko polemika ez da gaurkoa; bere sustraiak, hedapenak eta ondorioak ulertzeko mila liburu eta hamaika mila hitz xahutu dira, eta argienak diren bi oharpenak hauk dira: lehenik, klase borrokan etsaituak direnen argudioak guztiz komunikaezinak direla, eta, bigarrenik, biolentziari buruz epai zorrotz eta nabariak ematea demagogia hutsa dela.

Horregatik, alferrikako jotzen dut Garaikoetxea jaunari eskatzea besteen arrazoinak konpreni ditzala, edo dudarik gabeko justitzia baten defentsailearena egin ez dezala. Halere, *faszista* dela esaten badiot, beste arrazoin batengatik da: "konplizeak" eta "toleranteak" salatzeko eta zigortzeko deia zabaltzen 2uenean, sistemaren kontra pentsatzeko, egiteko, kritikatzeko ausartuko diren guzien aurka zigor epaia botatzen ari da. "Konplizitatearen" eremua neurtzeko zigortzaileen nahikundeak dira nagusi' eta edonor eror daiteke bildurrezko sareetan. Barka, jauna, baina hau da faszismoa: ados ez direnen gainean eta zure borondate guzizahaldunaren arabera lazturaren legea erorarazten duzunean, faszista zara. Ixiltasuna eskatzen diguzu, "bakean" bizi gaitezen: borroka izango duzu, pertsonak ezetz esateko duen eskubidea ez dugulako galdu nahi.

BELTZA

## cartas